



COVID-19ARI LOTUTAKO DESINFEKZIO-TRATAMENDUEI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA

2020/05/05 *berrikuspena*

Osasun Sailak 2020/04/02ko Agindua (Osasuneko sailburuarena, gainazalak garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak eta bestelako higiene-neurriak hartzen dituen, SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak eragindako pandemia dela eta) eta askotariko instalazio, zentro soziosanitario, jendarte publikoko toki, etxebizitza eta espazio publikoetarako jarraibide teknikoaren sorta bat argitaratu ditu. Informazio hori hemen eskura daiteke:

<https://www.euskadi.eus/normativa-de-medidas-excepcionales-adoptadas-por-el-nuevo-coronavirus-covid-19/web01-a2korona/eu/>

Gainazalen bidezko transmisioa kontrolatzeko neurri eraginkorra **maiz garbitu eta desinfektatzea da, establezimenduko edo establezimenduek kontratatutako langileen bidez**. Jardun horiek beren garbiketa- eta desinfekzio-planeari aurreikusi behar dira; berariaz hartu behar du kontuan birusaren kontrola, eta puntu hauek bildu behar ditu:

- Egoera eta arriskuen ebaluazio bat aurreikusten duen egoeraren diagnostikoa
- Garbiketa- eta desinfekzio-pautak biltzen dituen jardun-programa bat eremu eta gainazal bakoitzerako, erabili beharreko produktuak eta desinfektatzaileak, maiztasunak, hori egingo duten langileak, hondakinen kudeaketa...
- Garbiketa- eta desinfekzio-planaren jarraipen, ebaluazio eta berrikuspena

1. DESINFEKZIO-TRATAMENDUAK EGITEKO BAIMENDUTAKO PRODUKTUAK

SARS-CoV-2ak eragindako egungo pandemiaren osasun-krisialdiak handitu egin du establezimendu eta espazio publiko eta pribatuak desinfektatzeko produktu eta zerbitzuen eskari eta eskaintza. Desinfekzio-zerbitzuen eraginkortasuna hobetzearren, beharrezkotzat hartzen da honako argibide hauek nabarmentzea jarduera biruzida duten desinfektatzaileei buruz:

- Koronabirusak desinfektatzaile arrunt hauekin inaktibatzen dira eraginkorki: **% 70eko etanola, % 0,5eko hidrogeno peroxidoa** edo **% 0,1-0,5eko sodio hipokloritoa** (1000-5000 ppm) duen disoluzio bat **minutu batean**.
- Halaber, Osasun Ministerioak baimendutako biruziden honako zerrenda hau argitaratu du, UNE-EN 14476 arauaren arabera biruzida horiek birusari eraginkortasunez aurre egiteko frogatuta baitaude:

https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/Listado_viricidas.pdf

Zerrenda horretan, hauetarako produktu biruzidak agertzen dira: a) jendeak, oro har, erabiltzeko, b) pertsona profesionalak erabiltzeko eta c) langile profesional espezializatuek erabiltzeko.

Pertsona profesional espezializatuek erabiltzen dituzten desinfektatzaileak Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean (ROESBan) inskribatutako enpresek aplikatu behar dituzte.

2. COVID-19AREN KONTRAKO TRATAMENDUAN ERABILTZEN DIREN BESTE ERAGILE KIMIKOEN ETA INSTALAZIOEN ERAGINKORTASUNARI BURUZKO OHARRAK.

2.1) IN SITU SORTUTAKO OZONOA.

Ozonoa *in situ* sortzen duten sistemen/ekipamenduen bidez egindako desinfekzio-prozesuari buruz sortutako dudak ikusita, ohar hauek egiten dira:

- Substantzia aktibo hori **ez da artean onartu Europa mailan eta, beraz, Osasun Administrazioak ezin du bioziden legediaren arabera dokumentu bat ere eskaini horiek erabiltzearen eraginkortasuna edo segurtasuna ezartzeko.**
- Une honetan, substantzia aktibo gisa ebaluatzen ari dira Alemanian eta Herbeheretan, baina ez dute artean ebaluazioaren txosten-zirriborrerik aurkeztu.

Egoera horretan, *in situ* sortutako ozono bidezko tratamenduan aritzen diren eragileak honako hau justifikatzeko moduan egon behar dira:

- Osasun Ministerioari sistemaren/ekipamenduaren berri jakinarazi zaiola, bidalketa-zurtagiri baten bidez.
- Ekipamendu horien hornitzaileak enpresa aplikatzailearen eskueran jakinarazpen-dosierrean aurreikusitako informazioa jartzen duela, alderdi hauei buruz: erabiltzeko modua, erabili beharreko dosia eta gomendioak, eragin biruzidaren jakinarazpena eta aplikazio-eremua.
- Eskaintzan, erosleari/kontratugileari argi eta garbi jakinarazten zaiola *in situ* sortutako ozonoa ez dela artean biruzida gisa frogatua izan Europa mailan.
- Hirugarrenei Covid-19aren kontrako desinfekzio-zerbitzuak ematean "*in situ* sortutako" ozono-tratamendua erabiltzea aurreikusi duten enpresak inskribatuta egon behar dira Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistroan. Tratamendu horiek egiteko baimenduta dauden enpresen zerrenda hemen kontsulta daiteke:

<https://www.euskadi.eus/informacion/productos-quimicos-salud-ambiental/web01-a2ingsan/eu/#6426>

- Ez dela pertsonen aurrean aplikatuko.
- Ekipamenduaren jakinarazleak prestakuntza eman duela eta tratamenduak ekipamenduko zehaztapenei lotuz egiten direla. Gainera, gune itxiak behar bezala aireztatu behar dira, eta egiaztatu pertsonak sartzeko moduko kontzentrazio segurua dutela.
- Aplikatzaileek babes-ekipamendu egokiak dituztela. Substantzia eta Nahasketa Kimikoen Europako Agentziaren arabera, substantzia hori arriskugarria da arnasbideetarako, azala narritatzen du, eta begiak kaltetzen. Kontuan hartu behar da, halaber, substantzia sukoiekin erreakziona dezakeela eta erreakzio kimiko arriskugarriak eragin ditzakeela beste produktu kimikoekin erreakzionatzean.

2.2) KLORO DIOXIDOA.

Kloro dioxidoa helburu bakterizidaz eta fungizidaz (bakterioak eta onddoak suntsitzeko) baimendutako substantzia aktibo bat da, baina ez da biruzida.

2.3) ERRADIZIO ULTRAMORE (UV-C), OZONO ETA BESTE SUBSTANTZIA KIMIKOTAKO DESINFEKTAZIO-TUNEL, -KABINA ETA -ARKUAK.

Pertsona eta ibilgailuekin, ozonoko desinfektazio-tunelak, -kabinak eta -arkuak erabiltzen ari dira, eta oso garrantzitsua da argitzea egun **ez dela batere produktu biozidarik existitzen** (fisiko edo kimikorik) Osasun Ministerioak baimenduta **ziprizontze-, ihintzapen- edo/eta langarreztapen-tekniken bidez pertsoneri** aplikatuta erabiltzeko. Izan ere, edozein produktu biozida aplikatzen duten profesionalak produktuaren arrisku-kategoriarako egokia den babes pertsonaleko ekipamenduen bidez babestu behar dira.

Prozedura horiek arriskugarriak izan daitezke pertsonen osasunerako, kontrako ondorioak sortzen dituzten substantzia kimiko edo fisikoen eraginpean geratzen baitira, eta azala eta mukosak narritatzen dituzte, begietako lesioak sortzen, eta arnasbideei erasaten, besteak beste.

Ez dago baimenduta hipoklorito disoluzioak langarreztatzea, eta osasunari erasan diezaioke. **Ur ozonizatua** langarreztatzeari dagokionez, ur hori **ez da substantzia aktibotzat hartzen bioziden gaineko araudian**, eta **substantzia hori ez da agertzen Osasun Ministerioak baimendutako biruziden zerrendan**. Beraz, ezin da erabili desinfektatzaile gisa.

2.4) IBILGAILUAK DESINFEKTATZEKO OZONO-MAKINAK.

Ibilgailuak ozono-makinak erabiliz desinfektatzeko egiten ari den eskaintzari dagokionez, 2.1 puntuan zehaztutako baldintzak aplikatuko zaizkie.